

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA'91**

ELIZONDO
IZURA
ETXARRI ARANATZ
DONEZTEBE

Nafarroako Bertsolarien Lagunak

Egilea: Nafarroako Bertsolarien Lagunak

Koordinatzaile: Lorentxo Aburuza

Azala: K. Txokarro

Argazkilaria: J.A. Gezolaga, Iñaki Agirresarobe

Fotokonposaketa: Fonasa

Inprimatzailea: Line Grafic

Babeslea: NAFARROAKO GOBERNUA.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol departamentua

D. L. NA 562- 1991

AURKIBIDEA

SAIOAK	<i>Orrialdea</i>
Aintzin solasa	7
Azalpenak	9
• KANPORAKETAK	
Elizondo	12
Izura	33
Etxarri Aranatz	46
• FINALA	
Doneztebe	60

AINTZIN SOLASA

Bertze urte betez, burutu da Nafarroako bertsolarien txapelketa. Aurtengoarekin hogeigarren ekitaldia burutu dugu. Hogeitabi bertsolarik izena eman dute; bertze urtetako kopuru berdintsua. Hala ere aurtengoan bazen pozerako arrazoirik: partehartzailleen artean hamabost urteko mutiko gazte bat, Urko Atxutegi urruñarra, izan bait dugu. Xalbadorrek Izuran erran zuen bezala "aurtengo primaderaren lorarik ederrena".

Bada bertzelako arrazoirik. Apaltasunez bada ere, bertsoaren oihartzuna aspaldiko urtetan gutxi entzun edo entzun ez den Nafarroako xoko-moko anitzetara heltzen ari bait da. Kanporaketak jokatu diren herritan, Elizondo, Izura, Etxarri Aranatz, aretoak bete egin dira, eta tokian tokiko jendez bete gainera.

Bertsolariez, besta inguru honetako protagonista nagusiez, nola deus ez erran! Agian estualdiaren premiak eraginda, urtez urte maila hobea ematen ari direla ezinen da ukatu. Denetarik suertatzen da. Kanporaketa saiotan, aitzineko urtetako maila beretsuan jardun dira. Dena den, aurten ikusi da finalerako txartela lortzeko aukera dutenak ez direla zortzi edo bederatzi bakarrik, lehenago gertatzen zen bezala. Maila poliki-poliki goraka doa eta finalera sartzea lortzen ez duen anitzek amiñi bat falta du zortzikote horretan egoteko.

Puntan dabiltzanen artean antzekorik gertatzen da. Donezteben kantatu zuten zortzitik bortzek txapela jantzi zuen lehenagotik. Orai izen berri bat erantsi behar zaio "txapeldunen" talde horri, Manolo Arozena. Lesakan bizi den goizuetarrak, justu baina lortu du bere lehen txapela.

Bertzerik gabe, txapeldun berriak "prenda beltz horren epe la" sentitzen zuelarik azken agurrean botatakoa gogora ekarri dezagun: "Baina hemen hain justu
egin nahi dut apustu
hartu zaidazue hitza
denon artean baietz salbatu
nafarron bertsolaritza".

Hala bedi eta egon bizkor!

Iruñean, 1991ko Erramu egunez.

AZALPENAK

ANTOLAKETA

Nafarroako bertsolarien txapelketak bere hogeigarren ekitaldia burutu du aurtengo primaderaren atetan. Ohitura lege, urtero bezala "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" deitu elkarteak bere gain hartu du ekitaldi berri honen antolaketa. Dena den, kanporaketak eta finala bera jokatu diren Elizondo, Izura, Etxarri Aranatz eta Doneztebeko ainitz lagunen borondate eta lanari esker, ordu eta egiteko sobera aurreratu da. Beraz, lerro hauen bidez gure eskerrik beroena azaldu nahi genieke lagun jator guzi hoiei.

DIRU LAGUNTZAK

Nafarroako Gobemua, Lankide Aurrezki Kutxa, Kutxa Munizipala, Nafarroako Kutxa eta, Elizondo, Etxarri Aranatz eta Doneztebeko udalek eman dute, bakoitzak bere neurrian, txapelketa hau antolatzeko diru laguntza.

Entitate eta instituzio hauei ere gure eskerrak eskeinitako laguntzarengatik.

PARTEHARZAILEAK

Nafarroa guziko bertsolariek izan dute izena eman eta plazaratzeko aukera. Aurtengo ekitaldian hogeitabi bertsolarik parte hartu du. Zerrenda honetan azaltzen dira parteharzaileak:

- 1) Aire Mixel "Xalbador II" (Urepel)
- 2) Alkat Ernest (Iholdi)
- 3) Amorena Txomin (Zugarramurdi)
- 4) Argiñarena Joxe Fermin (Errazkin)
- 5) Argiñarena Joxe Migel (Errazkin)
- 6) Arzallus Jesus (Hendaia)
- 7) Arozena Manolo (Lesaka)
- 8) Arrosagarai joanes (Aintzile)
- 9) Atxutegi Urko (Urruña)
- 10) Elizagoien Bittor (Arraioz)
- 11) Ezponda Txomin (Jatsu)
- 12) Fagoaga Eusebio (Ituren)
- 13) Fagoaga Joxe Mari (Ituren)
- 14) Harinordoki jean Louis "Laka" (Baigorri)
- 15) Jaso Moises (Gaintza)
- 16) Madariaga Bautsita (Arantza)
- 17) Madariaga Xalbador (Arantza)
- 18) Martikorena Anjel (Igoa)
- 19) Mendiburu jean Pierre (Heleta)
- 20) Mihura Fermin (Sara)
- 21) Olano Antonio (Arano)
- 22) Perurena Bautista (Leitza)

Txomin Amorenak ez zuen kantatzerik izan gaixorik zegoenez. Izuran zegokion eta bere ordeztan Antonio Olano aritu zen. Hurrengo iganderako ere sendatu ez zenez, Olanok bi aldiz kantatu zuen nahiz epaimahaiak lehenengoa baizik ez zion kontutan hartu puntuaziorako. Finalari dagokionez bertze azalpen txiki bat. Epaimahaiak aukeratutako zortzien artean zegoen Jesus Arzallus baina ez zuen Doneztebera joaterik izan. Bere ordeztan sailkapenean bederatzigarren postuan zegoen Joxe Fermin Argiñarena aritu zen.

BERTSOLARIEN LANA

Elizondo, Izura eta Etxarri Aranatzeko kanporaketa saiotan nahiz Doneztebeko finalean bertsolariek lan berdina bete behar izan zuten.

- Agurra
- Binaka gaia emanik ofizioan hiruna bertso zortziko nagusian
- Binaka gaia emanik ofizioan hiruna bertso zortziko txikian
- Puntu bana erantzun
- Lau oinekin bertso bana osatu
- Gartzelako lana:
 - Azken puntua emanik bertsoa osatu
 - Gai bati hiruna bertso neurri eta doinu librean
- Azken agurra

EPAIMAHAIA ETA GAJARTZAILEAK

Mikel Bujanda, Aingeru Epalza, Jean Pierre Etxegoien, Mixel Itzaina, Emile Larre eta Joxe Urrozek osatu dute epaimahaia.

Gajjartzaile lanak hiruren artean banatu dituzte. Elizondon Patxi Larretxea aranaztarra izan zen aurkezle. Izuran berriz, Beñat Soule, Irisarriko semea. Etxarri Aranatzen Mikel Taberna, Iruñekoak jarri zituen gaiak. Doneztebeko finalean, bertze urteren batean egin den bezala, biren artean banatu zuten lana. Mikel Taberna eta Patxi Larretxearen agindutara abestu zuten bertsolariek.

LIBURUA EGITEKO ERIZPIDEAK

Azken lau urteotan "Nafarroako Bertsolarien Lagunak" elkarteak txapelketako bertsorik onentsuenekin liburuxka bat argitaratzen du.

Kanporaketa saiotatik bertso aukeraketa bat egin da, partehartzaile guzaien zerbait azaltzen delarik. Doneztebeko saioa oso osorik dakar.

Transkribapen lana egiteaz Pablo Jose Aristorena arduratu da.

ELIZONDOKO KANPORAKETA

1991.ko otsailak 24ean

Elizondon eman zitzaion hasera Nafarroako Bertsolari Txapelketaren XX. ekitaldiari. Herriko "El Pilar" eskolako zineman, aretoa leporaino beterik -ia 500 ikusentzuleren aitzinean- aritu ziren bertsolariak. Patxi Larretxea aranaztarraren agindutara kantatu zuten Moises Jaso, Joxe Fermin Argiñarena, Bautista Madariaga, Manolo Arozena, Ernest Alkat, Jean Louis Harinordoki "Laka", Jean Pierre Mendiburu eta Joxe Mari Fagoagak.

Elizondoko saio honetatik zuzenean finalerako txartela Manolo Arozena, Jean Pierre Mendiburu, Ernest Alkat eta Lakak lortu zuten. Joxe Fermin Argiñarena ere finalean aritu zen Jesus Arzallusek joaiterik ez eta bera zelako sailkapenean hurrena zegoena. Bertzalde, eguneko bertsorik onena botatzen zuenarentzat zegoen saria Manolo Arozenak jaso zuen.

AGURRAK

J.F. Argiñarena: Arratsaldeon bertsozaleak
ta kaixo Elizondori
ta mila esker lehendabiziko
zeratelakoz etorri
nerbio kontu ugari behintzat
entzun beharko askori
hori txarraren aitzakia da
ta ez sinistu inori.

Arozena: Txapelketa berri bat
jarri dugu dantzan
aurrera mejoratu—
tzeko esperantzan
detena emateko
ez nator zalantzan
bertsoa erein nahi dut
euskeran baratzan
geroak dudarikan
eduki ez dezan.

Mendiburu: Aurtengo guduak haste
bederen hiru lau aste
gero urte betez aske
gehientsuak gintaizke
ongi etorri bihotz erditik
bai xahar eta bai gazte
anaitasunez arratsaldeon
haur, gizon eta emazte
bertzu kaxkarrik baldin badator
ez zaiztela jarri triste
saiotan gehio kantatzen banu
hobeagoa nindazke
ahal dutana eskeiniz nator
zuen anaitasun eske.

OFIZIOKA ZORTZIKO HAUNDIAN

Larratxea: Zu, Jaso, militarra zara eta zu, Argiñarena, militar honen semea. Objetore izan nahi duzula erran diozu aitari. Jaso hasita, hiruna bertso.

Jaso: Nolabait ere askatu beharko
lotuta dagoen larra
dudarik gabe gaur suertatu naiz
Elizondon militarra
ez dakit nondik hartu behar dugun
elkar jota ere indarra
semea zuri lagunduko izut
hargatik naiz aita zaharra.

Argiñarena: Nere aita hau militarra da
ta ezin nau konprenditu
itxura denez medail hoietan
badauka hainbat meritu
baina gaur zuek medio hemen
zenbat ote dan sufritu
aita bezela errespeto nahiz
militarrak gorrotatu.

Jaso: Euskal Herria hori gabetan
ezin al liteke gora?
guk biok hartu beharko degu
gauza hortako denbora
aita semeak elkartu gera
orain elkarren ondora
semea trankil egon zaitez, ez
zaituz bialduko Golfora.

Argiñarena: Esan beharrik ez zendun hori
ez naiz joango egon trankil
Golfo aldean eta nonnahi hor
badago hainbat iskanbil
zergaitik hortxe odol jario
hainbat neska eta mutil
militar hauek defenditzeko
hainbat errugabeak hil.

Jaso: Indar haundirik ez leike egin
gerra zahar hori helduta
hamaika gorputz egongo dira
kulpa gabean galduta
seme batzuek Espainitikan
Golforaino bialduta
askotan kulpik ez duen askok
hola pagatzen bait duta.

Argiñarena: Militar askok egiten dute

harri bota, esku gorde
hitzegiteko garaiean zuk
hitzak dotore-dotore
gerrik onena baina pakerik
txarrena ez al da hobe?
zure semea horregatikan
egingo da objetore.

Larretxea: Zu, Bautista, ezkondu zinenetik, ortziralero ateratzen zara soziedadera lagunekin afaltzera. Gaur ateratzerakoan zure emazteak, Arozenak, hauxe erran dizu: " Faborez, gaur ez zaitetz joan". Hiruna bertso Bautista hasita.

Madariaga: Orain artian ostiraletan
afaldu det lagunekin
eta etxian zurekin ere
astea pasatu pakin
eta ez dakit zer keja dezun
nere joatearekin
gaur nahi nuke zuk zer nahi zenuken
etxian egin nerekin.

Arozena: Nik zer nahi dutan jakiteko zuk
badaukazu edadea
nahiz urte asko oraindik ez zera
talentu askoren jabea
kutxa zaharraren moduan nago
gela batean gordea
ez al dakizu nolakoa dan
daukaten bakardadea?

Madariaga: Bihotz-bihotzez maitatu zaitut
nik beti zu emaztea
urte batzuek baditut baina
zuk nauzu gizon fuertea
zuk ez dezu nahi ni parrandara
zu utzi eta joatea
larunbatean egingo dizut
ostiraleko partea.

Arozena: Bera entzunda pentsa liteke
badaukala nahiko gatza
baina handikan etorri eta
botzen du usai garratza
andreai kaso askorikan ez
elkartera zuzen martxa
hogeit egunen honi oraindik
gaixoa ez zaio altxa.

Madariaga: Urteak joanda gure etxean
horra hainbeste disgustu
egia bertan nik esango det
gauza nola zaigun pastu
andrea honek ni baino sasoi
haundiagorikan ez du
neria pixkat bajatu data
andreari zaio hoztu.

Arozena: Gizon batekin hainbat urtetan
etxean lanean tinko
haziak ere ditugu ia
bi neska ta bi mutiko
pentsatzen nuan bakardadean
ez ninduala utziko
zurekin ia aspertu naiz ni
joan zaitea betiko.

Larretxea: Mendiburu lapurra zara eta nabala edo labana eskuan hartuta, Fagoagaren dendara sartu zara eta dirua emateko eskatu diozu. Hiruna bertso Mendiburu hasita.

Mendiburu: Zure dendara sartzeko egun
hori nuen helburua
nabala daukat nere eskuan
ez naiz gero aingerua
emadatazu ahal bezain azkar
etxean duzun dirua
edo bertzenaz nabala huntaz
moztuko dautzut burua.

Fagoaga: Nere denda hortan lanean beti
hasitzen ohi naiz goizez
orain artean herri honetan
bizi ginaden trankilez
ta nahi badezu, eskatu zazu
"Ail, eman zerbait mesedez"
Hola eskatuta emango dizut
baina bortxaturikan ez.

Mendiburu: Bortxatuta deus ez eman nahi
alta, ez zira pobrea
beztimendutan eta hizketan
iduri duzu noblea
emaidatazu dirua orai
zuretzat laike hobe
dirua eman eta bizia
edukitzeko gordea.

Fagoaga: Modu horretan etorritzeko
honetxe daukan kopeta
nik ere, ez pentsa, irabazten det
hori askotxo kostata
pixkat atzera egin behar det
hor nik disimulatuta
ta kolpe batez botako dizut
mutur beltz horretan jota.

Mendiburu: Ikusten zaitut dendako jauna
zare dena malizia
nabalarekin etxen lapurra
dudakazun ihizia
nabalarekin zure dendan nik
egingo dut justizia
beraz, gaur biak galduko ittuzu
dirua eta bizia.

Fagoaga: Orain pentsatzen hasia nago

horrek ote mereziko
goizean goizik jeikitzen naiz ni
hemen lana egiteko
gero gazte bat nabala eskuan
nere aurrera etortzeko
ez du merezi egun batean
egin, bestean kentzeko.

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKAN

Larretxea: Fagoaga baserriko morroia zara. Eskusoinua, akordeoia egunero eramaten duzu lanera behiekin ari zaren bitartean jotzeko. Zu berriz, Alkat, etxeko jauna, Fagoagak akordeoia jotzen duenetik behiek esnerik ematen ez dutela ohartu zara. Morroiarengana zoaz kontu eske. Hiruna bertso Fagoaga hasita.

Fagoaga: Behiak eramatera
irtetzen naiz garaiz
nagusia ez dago
gaur aurpegi alaiz
horrela behar bada
leku horretan maiz
behiak ez dakit baina
ni dibertitzen naiz.

Alkat: Zuri hitzegiteko
bihotza kilika
konturatua bait naiz
ezin dut esplika
zure jokamoldeaz
banuke kritika
esnea nahiago dut
ez zinez musika.

Fagoaga: Nagusia heldu da
gaur haserretuta
urrutitikan entzun
holako disputa
ni beti joaten naiz
soinua hartuta
esnea nola eman
belarrik ez data.

Alkat: Hitzegin nahi nuke
umil eta ezti
belarra gure etxen
izatu da beti
oso artista zara,
poesiaz bezi
esnea etortzen da
gainetik beheti.

Fagoaga: Honek ematen bait dit

hor arrazoi dena
behi gaixoak goserik
ematen dit pena
ikusiko banitu
hain ongi zaudena
baina ez daude behiak
hau bezain gizenak.

Alkat: Buruz ere gizen naiz
hau hortan da txarra
alta etxean neukan
morroien beharra
etsaitzat hunek dauzka
behi ta belarra
bialduko dut laister
Andaluziara.

Larretxea: Laka andrea zara eta gaueko ordu ttikitan ailegatu zara etxera purua errez eta zure hatsari pattar usaia dariola. Zu berriz, Mendiburu, senarra zara. Etxean zaude eta Laka emaztea etortzean iratzarri egin zara. Hiruna bertso Laka hasita.

Laka: Larreko artetik naiz
pausatzen hala ere
bestak neretzat badu
biziki ganore
kanpora atera naiz
ni gau huntan ere
nahi nuen zerbait edan
ta purua erre.

Mendiburu: Parrandan bazabiltza
emazte koxkorra
senar hunentzat hori
da zorte idorra
orai ere bota du-
zu gezur pixkorra
ez da lehen aldia
zarela moxkorra.

Laka: Hunek berdin egiten
zuen lehenago
oharpena egin nion
nihaurk geroxago
bion artean alde
haundirik ez dago
ez dut bizi nahi beti
nik zure esklabo.

Mendiburu: Mintzatuko nitzazu
beraz justuena
esklabo bizeitza
dela gaixtuena
senarraz diozu zuk
dela astuena

eta nere andrea
deusik ez duena.

Laka: Ez zinituzket nahi
sobera kargatu
baina nihaurrek ere
lehen nizun barkatu
beraz, zergaitik egun
baimena eskatu
batzutan xoratzea
ote da bekatu?

Mendiburu: Edaten ta erretzen
zirade egondu
etxeratuta gero
bada mila kondu
gure entzule denak
jakitea on du
triste batekin nintzen
goiz batez ezkondu.

LAU OINAK ETA PUNTUA

Larretxea: **Euskera behera eta
gaztelera gora**

Argiñarena: Zergaitik didazu
gaur hori gogora
Euskal Herriarentzat
ez bait da mejora
martxa honetan behintzat
ez goaz inora.

Larretxea: **Zertarako lan egin
behar da hainbeste**

Madariaga: Zu bezela gazteak
behartzen gaituzte
horrela mantentzerik
ez zazula uste
gurasoak jarritzen
gaituzue triste.

Larretxea: Arozena zuretzat lau oinak hauek dira: **AZERI, ERI, AGERI eta BEDI.**

Arozena: Herri honetan bada
hainbeste azeri
gure hizkuntz zaharra
jarri dute eri
hain zuzen gaur ez dira
aurrean ageri
herritik ere hori
lehen bait lehen joan bedi.

Larretxea: **Urteak pasatuta
gu beti bezela**

Arozena: Baina oraindik fresko
daukagu azala
nahiz eta urbil izan
etsaien itzala
hoien atzaparretik
libratu gaitzala.

Larretxea: **Zer moduz bizi zara
ezkonduta ta gero**

Alkat: Nik gauza hoberikan
ez nuen espero
hogoi urtez bezala
gazte eta harro
gorputz eta bihotza
berdin ditut bero.

Larretxea: **Bertso bat baino hobe
dira bi dozena**

Laka: Asmatzea lana da
betitik lehena
hura ez bait da gero
nere errexena
ez dakit nola laiken
gero datorrena.

Larretxea: Mendiburu aukeratu dituzun lau oinak hauek dira: **EGIA, ZIRIA, EURIA** eta **GARIA**.

Mendiburu: Irakiarrei beha
bota dut egia
eta Saddam Huseini
botatzen ziria
gerra dugu munduan
diruen euria
kapitalistendako
hori da garia.

Larretxea: Zuretzat Fagoaga hauek dira lau oinak: **ZOR, JATOR, NATOR** eta **HOR**.

Fagoaga: Ni hementxe kantari
zuek entzuten hor
baina nahasturikan
gaur honuntza nator
nahiz eta ez kantatu
xuxen eta jator
garbi daukat bihotza
ez diot ezer zor.

GARTZELAKO LANA

Azken puntua: **NIK NERE BAITAN SENTITZEN DITUT**

ESPERANTZA TA BELDURRA

Gaia: Hauxe erran dizute: " Ez zara sekula aberastuko".

Madariaga: Gau eta egun beti lanean
lana ez zaigu ahaztuko
eta lanetik nekean hil ta
noski ez gera piztuko
esaten duten guztia ez da
langilearen gustuko
esan didate lanetik inoiz
ez naizela aberastuko.

Orain neretzat berriz sortzea
neretzat bai berandu da
bizi guzia lanean pasa
beti bestek aginduta
eta sekula ez naiz izango
dirutan aberastuta
nik egindako erdia edo
gehiago bestek kenduta.

Lehenago ere izaten ziran
holako gerr! klasiak
pobrearentzat gainetik zerbait
aginduta nagusiak
nik baditut, bai egunak asko
lanean gogor pasiak
zentimo gutxi irabazita
gainera erdi gosiak.

Arozena: Zerbait eskatzen dabilenari
bizkarretikan egurra
gauza guztiak menperatutzen
munduratu da gezurra
ia lurpera sartua gendun
lehen gendun lotsa apurra
"nik nere baitan sentitzen ditut
esperantza ta beldurra".

Alkat: Gaurko bizitza oso zaila da
geroa ez da segurra
Euskal Herrian izaiten dugu
zigorra eta egurra
gudari eta borrokalari
hartu gaur ene agurra
"nik nere baitan sentitzen ditut
esperantza ta beldurra".

Laka: Oi! euskara zuk oraindik ez jo
zorigaitzean gailurra
zure alde ainitz langileak
girela gauza segurra
baina nahi ta ez gure bizitza
gerta ditaik laburra
"nik nere baitan sentitzen ditut
esperantza ta beldurra".

Laka: Hogo eta hamazazpi

urte bait ditut beteko
orai ordua jina zaut
gogoeten egiteko
ez naiz aberastuko, hitz horren
ez naiz beldur entzuteko
ene amentsak zeren bait dira
bertze zonbeit gauzendako.

Egia da ni bizi naiz
beti hor justu justua
duruaren gibeletik
ez naiz ez abiatua
alta urbildik ikusten dut hor
nornahirekin tratua
nahiago dut nik aberastu
nihaurren izpiritua.

Askok dute besten diruz
beren sakela betea
molde hori ez zaut izan
neri sekula maitea
dirudun denek ez bait dakite
zer den lasai egoitea
neri nahiko zaut aberastasun
euskalduna izaitea.

Mendiburu: Zazpi probintzi menperatuak
hori da gauza segurra
menderen mende euskaldunori
bota digute egurra
askatasunen bide berria
nik ez dakit nola urra
"nik nere baitan sentitzen ditut
esperantza ta beldurra".

AZKEN AGURRAK

Alkat: Nafarroak hartzen du
bere ohorea
meritu asko dauzka
badu balorea
agur eta eskerrak
bakotxak berea
esperantzak berderik
dauka kolorea
aberats izaiteko
atxik umorea.

Laka: Elizanbururen aina
nere saioa ez zen baina
oral lana dut egina
hainbertze jende entzule leial

guretzat zer atsegina
nehor ez dela sorgina
hori da gauza jakina
goazen beraz aitzina.

Mendiburu: Goazen beraz aitzina
beti xahar eta gazte
arbasoen herri maitea
izan denek beti maite
gaurko saio xume huntaz
pozik egondu zaitezte
eta nahi baduzue
bertze aldiño bat arte.

IZURAKO KANPORAKETA

1991ko martxoak 3an

Ostiberreko Izura herrixkan sei bertsolari aritu ziren kantuan Beñat Soule gaijartzaile zutelarik. Bertsolariak Jesus Arzallus, Mixel Xalbador, Fermin Mihura, Antonio Olano, Joanes Arrosagarai eta Urko Atxutegi izan genituen. Saio honetatik Mixel Xalbador eta Jesus Arzallusek lortu zuten Doneztebeko finalerako txartela. Bertzalde erran behar da, Txomin Amorena, Zugarramuerdiko bertsolaria zela hemen aritzekoa baino eritasunak jota ezin etorrian, Antonio Olanok ordezkatu zuela.

Saioa "Haize Berri" kultur etxean egin zen areto bete betean. Azkenean Mixel Xalbadorrek jaso zuen arratsalde horretako bertsorik onenarentzat zegoen saria. Herriko auzapezak bere aldetik, Urko Atxutegi, Urruñako bertsolari gazteari eman zion oroigarri bat herriaren izenean.

AGURRAK

Xalbador. Arratsaldeon zuri Izura
ta berdin izuratarrer
bertze nonbaitik jin bertsozale
guzier ere halaber
nik xapelaren ondolik ez dut
egin gogo aunitz laster
zueri plazer egin baneza
har nezake aski plazer.

Mihura: Zorionean gertatu zauku
gaur Izurarat jitea
miresgarria hemengo etxe
ta elizako partea
barne gozamen bat hartzen bait du
gure euskaldun izaiteak
denen artean ohora dezagun
beraz, Izura maitea.

Arrosagarai: Gaurkoan ere ez pentsa naizen
oraindik ene gostura

baina hala ere etorria naiz
zinezki ene hautura
atsegin haundiz hartzen bait dugu
hemen jartzen den bilkura
bihotzez agur anai-arrebak
bai eta zuri Izura.

Atxutegi: Alde batera utzi nahirikan
neure nerbio ta penak
nahiz ta bihotzak egiten ditun
orain taupada ozenak
txartelen baten bila gabiltza
hemen kantatzen gaudenak
kontsolante bat eskatuzen dit
oraintxe nere barrenak
nahiz bertsotan ez, alturan behintzat
irabazten ditut denak.

LAU OINAK ETA PUNTUA ERANTZUN

Beñat Soule: Horra zuretzat zortziko txikian bertsoa osatzeko lau oinak: **SOKA, BORROKA, MOKOKA** eta **TROPA**.

Arzallus: Aspaldi hasi ziren
Kuwaiten mokoka
gero oso luzea
zen hango borroka
Sadami izorratu
die zeukan tropa
eta orain ezarri
nahi diote soka

Beñat Soule: **Sekulako indarrez
etorri naiz hona**

Arzallus: Ta egun behar dena
ez da noski broma
zuzen eta serio
dago gaur gizona
ondo egitea da
nere zoriona.

Beñat Soule: Xalbador, zuretzat lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **HESI, IHESI, BEREZI** eta **MEREZI**.

Xalbador: Nafarroak artean
badu zonbeit hesi
gure artean hori
ez dugu merezi
kentzeko ez bada egiten
hor zerbait berezi
ni norabait ere joan
behar naiz ihesi.

Beñat Soule: **Kaiola irekita
xoriak kanpora**

Xalóador: Ez dira airatuko
nahi bezain gora
baina gaur primadera
kasik kasi hor da
libertatez xoriek
bezate ohora.

Beñat Soule: **Arnoak ez du pizten
gure etorria**

Mihura: Zuk ere badakizu
hor gure neurria
baina gertatzen zaigu
ikaragarria
hala ere dudala
hemen egarria.

Beñat Soule: **Bakea goratuta
armak eskuetan**

Olano: Hori gertatutzen da
hainbat naziotan
zer pentsamentu ote
hoinen buruetan
inuxenteak hiltzen
dabiltz kanpuetan.

Beñat Soule: Zuretzat Urko Atxutegi lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **EDANA, LANA, BANA** eta **ZUGANA**.

Atxutegi: Aitatu behar ditut
orain gauza bana
dexente maitatzen dut
oraindikan lana
eta ez dut ez maite
batere edana
ni ez naiz urbilduko
inola zugana.

Beñat Soule: **Eginak arras gutti
ta hitzak sobera**

Atxutegí: Hori horrela bada
goazen aurrera
nahiz gauza txarra izan
bagoaz kalera
bizia behar bait da
nolabait atera.

GARTZELAKO LANA

Azken puntua: **"BIHOTZA BERO, JAUZIKA HASIZ
EGIN ZAGUN ORAI DANTZA"**

Gaia: "Zure alaba eri duzu. Bihotz berri bat behar du transplantea egiteko. Bihotz hori ekarriko dizun hegazkinaren edo abioiaren beha zaude". Hiru bertso doinu eta neurri librean.

Arzallus: Bertsolaritza galduko zela
bagenun nahiko zalantza
baina gaurkoa ikusirikan
bihotza dezagun altxa
gazte bat ere igo bait zaigu
taula honetan gorantza
"bihotza bero, jauzika hasiz
egin zagun orai dantza".

Arzallus: Orain zortzi bat urte etxera
sortu zitzaigun uxoa
zoritxarrera ustekabeen
eman du azken pausoa
sortzetik ere nola ez zuen
gorputza oso osoa
bihotz berrian beharrean da
nere alaba gaixoa.

Zuri begira aita ta ama,
aitona eta amona
igarotzen degun trantze hauxe
ez da batere ez ona
ondo bukatu bedi lan hori
horra gure zoriona
hegazkin hori iritsi bedi
Bordeletikan Baiona.

Ebakuntza hau ez dakit nola
ote liteken atera
hauxe da orai zure aitatzok
egiten duen galdera
mundutik joango bazina ere
aingeru baten antzera
aita hil da ere berdintsu zaio
zu hola joaten bazera.

Xalbador Arras gogorra izaiten da maiz
artzain onaren bizitza
aurtengo negu hau ere izan
da hotza eta bortitza
baina martxoan gira ta orai
bada zerbait esperantza
"bihotza bero, jauzika hasiz
egin zagun orai dantza".

Xalbador: Alaba eri dut maitea ta

hemen nago bihotz minez
norbait izan da bihotz emaile
ta hor dator hegazkinez
emaile hura eskertu nahi dut
ene eskerhoberenez
baina ez dakit hegazkin hori
goiz aski helduko denentz.

Bere haurretaz edozein aitag
badu aunitz arrangura
zer gauza ilun eta tristeak
datozen ene burura
Ai! hegazkina zuri buruz ni
nabila berriz ingura...
zatoz goiz aski ez dadin ene
alaba hortxe burura.

Ene alaba, maitatzen zure
aita hain bait da trebea
zu hortxe zaude orai maitea
osagarririk gabea
ez zira bihotz faltan hilen ez,
ez beldurtu hor ordea
hegazkina goiz aski ez badator
emanen dautzut neurea.

Mihura:

Aspaldixkotik gure etxean
apal daukagu gogoia
ene alaba bihiotzetikan
ez bait da hainbat sendoa
baina esperantza bat hor heldu
zauku naski oraingoa
ez da naski hau leloa
polita gaurko ondoa (bis)
hegazkin batek berri ekarki
eta nere esperoa
luzaz ikusi nahi bait nuke
alaban bizi beroa.

Hainbat denbora eritasunez
kexu dirade bazterrak
ezker nahiz eskuin medikutara
egin ditugun lasterrak!
batzutan ongi uste doala
eta heldu da okerra
baina barrenean garra
hala ere dago suharra (bis)
norbaitek bihotz bat emaita
izango da gauza ederra
oraindankan hartu ditzala
bihotzez nere eskerrak.

Sobera luzaz izanik ere
orai arteinoko tratu

azken batean uste dut ongi
denik dena akabatu
hegazkina da urrundik matxan
laster behar arribatu
ginaizke beraz sendotu
eta bideari lotu (bis)
baina hegazkin hori ez bedi
orai sobera luzatu
famili dena alabarekin
gero gaitezen gozatu.

Olano: Irak aldean izan berria
da orain berriro salsa
politikoen ongi beharrak
zabarkeriraino bultza
jakin ta ikusi, edo ta entzun
hainbat mila heriotza
"bihotza bero, jauzila hasiz
egin zagun orai dantza".

Arrosagarai: Hoberenera izan nahi dut
oraindik esperantza
bertsu lanean bide onera
oraindik naike lantza
bertsoarekin bertan atxikiz
ofizioa laborantza
"bihotza bero, jauzika hasiz
egin zagun orai dantza".

AZKEN AGURRAK

Arzallus: Lanak bukatu ditugu eta
orain pozik eta tente
lanen denboran sufrimentua
izan bait dugu dexente
agur entzule guziori po-
zik gelditu bazerate
mila esker etortzeagatik
denori beste bat arte.

Xalbador: Izan ote da hemengo hainbat
zorion gaur ote horko
beti ere izan den guzia guk
dugu partitu beharko
enetzat behintzat hau izara da
zorion haundia gaurko
aurtengo primaderaren lore
ederrena dugu Urko.

Arrosagarai: Arratsalde bat goxoa pasa
bait dut entzuler begira
nahiz eta ez haundia izan
ene bertsuen dirdira
baina gero ere nahi baduzue
etorriko naiz argira

entzule maite zu berriz nitaz
noizbait behartzen bazira
telefonoa egin zazute
Aintzile `Benta Berrira".

ETXARRI ARANATZKO KANPORAKETA

1991.ko martxoak 10ean

Etxarri Aranatzzen zortzi bertsolari aritu ziren kantuan Mikel Tabernak gaia emanik. Txapelketaren azken kanporaketa zen Etxarrin jokaturakoa eta bertan ziren Eusebio Fagoaga, Joxe Migel Argiñarena, Xalbador Madariaga, Txomin Ezponda, Antonio Olano, Bautista Perurena, Anjel Martikorena eta Bittor Elizagoien.

Saio honetan Txomin Amorenak kantatu behar zuen. Izuran zen aritzekoa zugarramurdikoa baina gaixo zegoenez Antonio Olanok kantatu zuen bere partez Baxenabarren. Etxarrirako ez zen oraino sendatu eta hemen ere Antonio Olano aritu zen, beti ere txapelketako puntuaziotik kanpo, honek Izuran jaso bait zituen bere puntuak.

Saioa Etxarriko zineman jokatu zen 350 ikusentzuleren aitzinean. Bertsorik onenarentzat zegoen saria Bittor Elizagoien arraioztarrak eraman zuen etxera. Etxarriko saiotik Txomin Ezponda eta Bittor Elizagoienek lortu zuten finalerako pasea.

AGURRAK

Perurena: Badakizute nola gauden gaur
ondotxo jan ta edanak
jeneralean hola dirade
bertsolariaren planak
diferentzi haundikoak dira
esanak eta izanak
itxura txarrik ez daukazute
ondo al zarete danak?

Martikorena: Arratsaldeon, ongi etorri
entzule bihotzekuak
gaur zuretzat izango dira
guk botatako bertsuak
Etxarriraino ez gera bildu
bertsolari puntakuak
baina deguna gaur emateko
borondate onekuak.

Elizagoien: Zaldikotikan etorri gera
ekipo bat dexentea
Martikorena ta ni titular
Burgi dugu suplentea
entrenadore Nikolas eta
Toshack, Rikardo gaztea
Manu Legarra masajista ta
Patxi da presidentea
baina hala ere kostako zaigu
gaur hemen irabaztea.

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKIAN

Taberna: Ezponda oinez abiatu zara Beriain mendira, eta zu Fagoaga berriz, kea eta burrunba, erosi duzun moto haundiarekin. Bidean elgar topo egin duzue. Oinezkoa hasita hiruna bertso.

Ezponda: Ohitura den bezela
oinez nabil aurten
nere bidea bait dut
gustura egiten
hau motoarekila
lotsa du emaiten
mendirat igoko naiz
ni hauxe baino lehen.

Fagoaga: Ni baino txuloago
gaurkoz hemen nor da
oinez abiatu da
oraindikan hor da
motoan ibiltzea
gaur egunez moda
ez du gutxi balio
nik daukadan Hondak.

Ezponda: Zure Hondarekila
ez has atakian
kea nahikoa badu
honek gibelian
zaldiak azpian ta
astoa gainian
zoaz hemendik eta
ni utzi pakian.

Fagoaga: Gizonak nola egin
pobrean papera
dirua badut eta
betea kartera

hau berriz oinez doa
lurretikan behera
igo zaitez nerekin
motoan gainera.

Ezponda: Zure baldintza hoiek
aproposak dira
baina egon naiz hemen
ni zuri begira
bestelakoa daukat
mendian dizdira
ni izerditzekotan
nijo mendira.

Fagoaga: Enbidia dauka ta
ez daki non zizta
baina ibiltzekoa
nola ez den pista
honetan izan arren
motoan artista
isilduko nintzen hau
balitz deportista.

Taberna: Elizagoien, zuk aktorea izan nahi duzu eta pelikula batean parte hartzeko desiotan zaude. Zu, Olano, zine direktorea zara eta egin gogo duzun pelikularako protagonista edo aktore nagusiaren bila zabilta. Hori jakinik Olanorengana zoaz. Elizagoien hasita hiruna bertso.

Elizagoien: Zuregana banator
gaur direktorea
mutil polita eta
nahiko dotorea
aurpegi fina daukat
ona kolorea
non bilatuko duzu
ni baino hobea.

Olano: Hola hitzegitea
beti zait atsegin
mutil polita dala
lehendik diat jakin
baina aurretik behar
diagu hitzegin
ia moldatzen garen
zure soldatakin.

Elizagoien: Soldata askorikan
ez dizut eskatu
eta nahiko zintzoa
ez al naiz portatu?
eta jendeak nahi du
nerekin gozatu
jendeak nahi duena
ezin da ukatu.

Olano: Papel bat badaukazu
garrantziz da ona
aiapatu behar diat
beraren izena
laster esan du bera
degula onena

egin beharko duk han
indioarena.

Elizagoien: Indioa egiten
nintekenez hasi
egin beharko dut nik
bihotz eta guzi
zer egitea nahi duzu
nagusi berezi
baina kanpo uzterik
nik ez dut merezi.

Olano: Hitzegiten duguna
ez da noski txantxa
azkar hartu nahi luke
aktorean martxa
oihu haundiz mendian
beharko duk altxa
neuk emango dizkiat
aizkora ta fletxa.

LAU OINAK ETA PUNTUA

Taberna: **Aralarren haundia
ohi dugu haizea**

Fagoaga: Horrera urbiltzeko
hobe ondo jaztea
bestela ez da zaila
hotza pasatzea
eta modan dagoen
gripea hartzea.

Taberna: Argiñarenarentzako lau oinak hauek dira: **GORAKA, DAUKA, BANAKA** eta **KAKA**.

J.M. Argiñarena: Baldin bagabiltz hemen
guziok banaka
ez dago itxaroterik
eta hori kaka
gure bertsolaritza
dijoa goraka
honek etorkizuna
oraindik badauka.

Taberna: **Gaztetako ametsak
gaur non ote dira?**

Madaríaga: Ni ere egina naiz
makina bat jira
nehaur ere egondu naiz
askori begira
baina zahartu ondoren
badoaz ta, tira.

Taberna: Madariagarentzat lau oinak: **ALAIA, LAIA, ZELAIA** eta **GARAIA**.

Madariaga: la zahartu naiz ta
joan da garaia
hargaitik ondatutzen
ari da zelaia
beti ere gustokoa
ez bait nuen laia
baina hala ere beti
langile alaia.

Taberna: Ezpondarentzat lau oinak: **GOZO, OSO, ERASO** eta **PRESO**.

Ezponda: Gure anaiengatik
hainbeste eraso
herritan mutil batzu
baditugu preso
barrun ilun hoietan
ez dagonez gozo
goraintziak bidali
maite ditut oso.

Taberna: Olanoretzat lau oinak: **IZENA, ZENA, ZEZENA** eta **GAITZENA**.

Olano: Hitz batean esango
dizuet izena
oso flakoa ez zan
hura bai zezena!
Gauza txarra bazuen
denetan gaitzena
Husein izan genuen
Kuwaiten zezena.

Taberna: **Batzutan hitz gehiegi
ez ordea zuzen**

Perurena: Nahio nuen txapelketa
tokatu ez bazen
hemen ere bada hainbat
behi eta zezen
jakin izan banu hau
etorriko ez nintzen.

Taberna: Martikorenarentzat lau oinak: **EZINA, ARINA, FINA** eta **EGINA**.

Martikorena: Gaztetan ni lan asko
ba naiz bai egina
gaztetatikan nintzan
hain langile fina
nahiz eta ez nagoen
gorputzez arina
lan asko egin eta
gaur bizi ezina.

Taberna: **Gerra hotsen artean
joan zen otsaila**

Elizagoien: Guziendako genuen

hori nahiko zaila
armamentu aldetik
kristoren bataila
orain behintzat pakea
etorri dedila.

GARTZELAKO LANA

Azken puntua: **AMETSAK AMETS IZATEN DIRÁ
HORRA EUSKALDUNON GAITZA**

Gaia: "Bertsolari txapelketa antolatu da zure herrian eta zuk ere izena eman duzu. Saioa ailegatu eta taula gainean zaudela ohartu zara zu ez beste partaide guziak neskak direla". Hiru bertso doinu eta neurri librean.

Ezponda: Txapelketa da gure herrian
egin halako batian
zoragarrizko aments batzuek
egiten nago tartian
hoinbeste neska ikusiz geroz
gaur nere aldamenian
ni ere hemen egongo al naiz
zertxobait esan nahian
behin bederen abestuko det
nik baratze ederrian.

Zazpi emazte aldamenean
joka beharko serio
deneri hemen nola aitortu
badetela amodio
emakumeai maiz arrazoia
errexki jaltzen zaio
nik badakit bai, hizketan hasiz
ez diradela gutxio
zer mila debru!, emakumeak
gizona dute balio.

Ez pentsa gero emakumeekin
hemen naizela errukiz
gozoak dira benetan eta
gozatu dut asko aldiz
emakumeei beti goxoki
egiten bait diotet hitz
eta beroier ni esatera

gizon bezala heldu niz
gizonik ere ez ditakela
emakumerik ez balitz.

J.M. Argiñarena: Hau eta hori egin behar ta
zenbat aldiz geran mintza
baina haizeak eramaten du
sarri gero gure hitza
asmoak asmo hala egingo
direla ustez gabiltza
"ametsak amets izaten dira
horra euskaldunon gaitza".

Martikorena: Euskal Herrian jaio nintzan da
euskalduna det bihotza
euskararen alde izandu da
nik egin dedan ekintza
beti nahi nuke gorde nerekin
heldu arte heriotza
"ametsak amets izaten dira
horra euskaldunon gaitza".

Elizagoien: Politikoeak txintxo emana
daukaten arren hor hitza
Euskal Herrian nahiko itxusi
eta penetan gabiltza
gartzelan dute hainbat gudarik
alferrik galtzen bizitza
"ametsak amets izaten dira
horra euskaldunon gaitza".

AZKEN AGURRAK

Ezponda: Ez dakit kontent gelditu zaizten
egun egin dugun lanaz
hartuak hartu, utziak utzi
beti aurrera bagoaz
nere partetik kontentik nago
hemen zegoen giroaz
xaloengatik milaka esker
agur Etxarri Aranatz.

Perurena: Geure bertsuak eta kantuak
hemen gabiltza urtero
zerbait bageralako ustean
denbora juanda gero
neregandikan milagro asko
ez zenezaten espero
gehiago eskatzerik ez dago
ahal dana egin ezkeru.

DONEZTEBE

1991 ko martxoak 17an

Doneztebeko "Bordatxo" dantzalekuan burutu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketa honen saio nagusia edo finala mila ikusentzuleren aitzinean. Mikel Taberna eta Patxi Larretxearen gidaritzapean aritu ziren kantuan Manolo Arozena, Jean Pierre Mendiburu, Mixel Xalbador, Ernest Alkat, Txomin Ezponda, Bittor Elizagoien, Jean Louis Harinordoki "Laka" eta Joxe Fermin Argiñarena.

Epaimahaiaren erabakiz, nahiz puntu gutxiren aldearekin, Manolo Arozena goizuetarra suertatu zen txapeldun berria. Bigarren berriz, Jean Pierre Mendiburu heletarra. Azken honek irabazi zuen ere bertsorik onenarentzat zegoen saria gartzelako gaiean botatako bertsoengatik.

AGURRAK

Xalbador. Bildu zirezte bildu
bertsozale asko
mila esker horrenbertze
jin zireztelako
argi batzu zirezte
zuek guretako
agian bertso onak
ditugu botako
ez xapelarengatik
baina zuendako.

Elizagoien: Besarkada bero bat
entzule maitea
zahar eta gaztea
beldurra ematen du
bertsotan hastera
ikusirik dagola
"Bordatxo" betea
onena izango da
txapelaz ahaztea
bakarrik nahi det zuek
pozetan uztea.

Mendiburu: Zortzi buru txapel gabe
oraino gaude hozturik
lagunak etorri zaizkit
bilo ileak mozturik
ez dut eskatzen lehenengo
edo bigarren posturik
baina entzule guziak
nahi 'tut ezarri pozturik
agur entzule maiteak
zaharrak eta gazteak
gizon eta emazteak
nafartar eta besteak
ez egon egun tristeak
baina bai pozez beteak
plazer du hau ikusteak.

Ezponda: Agur bero bat Amorenari
irratia bidetik
Miarrantzen da Poliklinikan
operatuik bizkarretik
desio diot ahal bezain laster
atera dadien handik
egun gogoia gurekin dauka
miseriaren artetik
haizak! hi Txomin aterako haiz

agur bat denen partetik.

Arozena: Bost kilometro oinez egina
beraz, ni ez nator hotzez
nerbio eta txorradak utzi
ta kanta nahi det bihotzez
kategoririk ez detela ta
zertako isildu lotsez?
hau ikusita urte bete bat
behintzat pasako det pozez.

Alkat: Agur bero bat lehendabiziko
bihotzetik dut erranen
ahal guzia nik zuendako
berriro bait dut emanen
saio eder bat daukat helburu
izanikan ere azken
anarte hontan arratsaldeon
guziori Donezteben.

Argiñarena: Hogeituro litro belar ur
jartzeko trankila
ta aski ez balitza
hainbat pastilla
nahia eta ezina
sarri korapila
ta ahal dedan moduan
hementxe nabila
hau da jende pila
ta giro pilpila
zortziko koadrila
txapelaren bila
Jainkoak nahi duena
gerta dedila.

Laka: Toki xoragarrian gaudela
hori gauza nabarmena
entzule maite zutarik dator
guk behar dugun kemena
zortzien lanerako
agian onerako
denok izan nahi lehena
xapel jabea gerta dedila
buru hutsa ez duena.

OFIZIOKA ZORTZIKO HAUNDIAN

Taberna: Zu, Xalbador, mutil gaztea zara eta gaur hirugarren aldiz etorri zara Elizagoienengana bere alabaren eskua eskatzera, alabaren galdatzera, aurreko bi alditan ezetz erran bait zizun. Hiruna bertso zortziko haundian Xalbador hasita.

Xalbador. Lehenago ere bitan hartu dut
honelako irriskua
eta oraino ere dadukat
bihotza estu-estua

jauna badakit zu zaitugula
gizon zuzen ta prestua
zure alaba maite dut eta
nahi nuke bere eskua.

Elizagoien: Oraindik orain martxan daukagu
alaba horren auzia
kezkagarria mutil horretzek
daramakin malezia
aitakin ezin konpondu hemen
gauza horren justizia
berai eskatu zaiozu lagun
berea bait du bizia.

Xalbador: Berak baietza erran zautan ta
okerrik ez da auzian
zuk ezetz bitan erranagatik
nago ni pazientzian
zure alaba asko maite dut
behintzat nere iritzian
ta orai hainbat maitatuko dut
nere bizi guzian.

Elizagoien: Hizketan behintzat arina eta
poliki zerade hasi
esaten duzu maite duzula
zure bihotz eta guzi
maitasun hori ez dedin joan
sekula santa ihesi
nere alabak senar txarrikan
behintzat ez luke merezi.

Xalbador: Nolaz dakizu ni senar txarra
noizbait izanen naizela
hori erranez ezarri duzu
ene bihotza goibela
zure alabak maite nau eta
ezkontza zuk ez gibela
ikusten duzu berdin hola ere
nahiko mutil zahar badela.

Elizagoien: Mutil zaharraren beldurragatik
zabiltza gaur atakean
eta hargatik etorri zera
alaba horren eskean
maite baduzu hartu ezazu
bihotzez borondatean
nere laguntzik ez da faltako
bizirik nagon artean.

Taberna: Zu, Mendiburu, amurraina zara eta zu, Ezponda, arrantzalearen amuan zauden zizarea. Hiruna bertso zortziko haundian Mendiburu hasita.

Mendiburu: Arrantzaleak arraina dauka
beti bere ihizia
eta nik ere erantzun nahi
derautzut bixi-bixia
zizare hori jan nalri nuke

badut horren gutizia
baina hori jan eta beldur naiz
galtzea ene bizia.

Ezponda: Arrantzaleak bere amua
lotua du zizarira
arrain gaixoa hortxe dabila
zizareari begira
arrain maitea zuk bezala dut
nik bizitzeko desira
baina ni irensten banauzu zu
zerone galduko zira.

Mendiburu: Galduko naiz bai eta zuretzat
orduak litaiketa poza
amurrainez estomaka zuk
ederki zinio goza
arrainak nola biltzen 'tuzuen
ez daukat gauza arrotza
nalúago zaitut uki eta
urrun utzi heriotza.

Ezponda: Ikusi duzu bien artean
zer eztabada daukagun
arrantzaleak modu hortara
saiatzen dirade egun
zure ahotik pasa ezinik
ni bizi nindaiketa legun
guttienetik bi bizitarik
batto salbatu dezagun.

Mendiburu: Bi bizitarik bat salbatzea
ez zira segur debila
arrantzan egun hortxe zabiltza
Euskal Herriko mutila
zizare hori janez gaur egun
ez naiz geldituko hila
ni engainatu nahi banautzu
ez zira aski abila.

Ezponda: Arraina egun abila data
kondatu ditu egiak
ni amu puntan eman ninduen
hor arrantzari gaztiak
saiatu gaiten gure aldera
hemen arraina ta biak
jukutria hori baino gehiago
balio al du biziak?

Taberna: Zu, Arozena, politikaria zara eta zu, Alkat, lurtean eserita eskua zabalik dagoen eskalea. Hauteskundeak edo bozketak urbil daudenez politikaria eskalearengana joan da boto eske. Hiruna bertso zortziko haundian politikaria hasita.

Arozena: Diru aldetik hutsikan zaude
etorkizunetik lehor
baina nik lana egin nahi det ta
jendea ikusi baikor

kale ertzetan diruan bila
ibil ez dadien inor
mundua aldatu asmo onakin
zure boto bila nator.

Alkat: Zer mila debru!, ene botoa
hola duzu eskatuko
badakit bada nere izena
laster duzula galduko
nere botoak balio badu
baina nola onartuko
hautets eguna iragan eta
laster nauzu baztertuko.

Arozena: Langilearen umea naiz ni
lanan daramat bizia
eta aspaldi nere burua
daukat erotzen hasia
politikoez usteltzen dute
ukitzen duten guzia
eman botoa nik jarriko det
falta zaigun justizia.

Alkat: Politikero gizonak ezin
justiziarik ekarri
eta nagoen arrote huntaz
gaur gose eta egarri
egi haundi bat bihotz barrean
nahi derautzut ezarri
politikero faltsu baino hobe
fina eta eskelari.

Arozena: Aberats eta maltzur jendeez
egina dago legia
zu ikusita negar malkotan
dadukat nere begia
zu kale ertzen eske egotea
ez da gauza zilegia
zure lanetik lortuko dezu
eguneroko ogia.

Alkat: Hamar urte du ogibidean
egiten dakot otoitza
politikero hoienganik
herriaren heriotza
lana nuen nik galdua eta
berriz bilatzeko lotsa
eskelaria banago ere
nik ere badut bihotza.

Taberna: Zu, Argiñarena, lantegiko langile zaharra zara eta gaur jubilazio edo erretreta hartuko duzu. Zu, Laka, langile gaztea zara eta gaur hasiko zara lantegian Argiñarenak utziko duen lanpostuan. Hiruna bertso zortziko haundian Argiñarena hasita.

Argiñarena: Lantegi hontan pasatu ditut
berrogei urte inguru
goizean hasi ta gauerarte
lanean ni buruz-buru

baina gaurkoan nere karrerak
hemen bukatu behar du
adizu Laka eskatzen dizut
porta zaitezten ondradu.

Laka: Beraz, gaur duzu zure burua
lantegitikan ekendu
erretreta on bat pasa zazu
baduzu merezimendu
hogeitamar urtez egin duzuna
ez nuke nahi atzendu
zu egon ziren lantegi hori
nere indarrez nik mantendu.

Argiñarena: Batetik pozez bestetik triste
gaurkoan jarri hemen ni
agurtutzeko ordua ere
ez etortzen edozeini
urte hauetan lantegi hauxe
goi mailan degu ipini
zuk ere hola jarrai ezazu
dezun guzia eskeini.

Laka: Lanikan bate egin gabean
ez doa nehor nehora
zuk lantegian pasa orduak
etortzen zauzkit gogora
zuk bezelaxe familirako
hor hartuko dut altxorra
nagusiari ordainduko dut
lanarekin nere zorra.

Argiñarena: Aitortzen dizut gazteen esku
nola dan etorkizuna
baina lanean osatutzen da
hori ongi dakizuna
azken momentun langile xaharrak
hauxe esan nahi dizuna
ni bezela jubilatutzeko
izan zazu osasuna.

Laka: Eginahala eginen dut bai
osasuna beiratzeko
baina hala ere ez nago lotsaz
nere lana egiteko
ez naiz barruan orai sartua
gero ni aberasteko
baizik zuk hunaino iraunazi
lantegia salbatzeko.

OFIZIOKA ZORTZIKO TXIKIAN

Larretxea: Zu, Ezponda, aizkolaria zara. Gaur Euskal Herriko txapela irabazi duzu baina antidopping kontrola egin eta positiboa atera denez irabazitakoa kendu dizute. Zu berriz, Xalbador, aizkolariaren entrenadorea edo managerra zara eta Ezpondari botika moduko zerbait aritu zinen ematen indar gehiago izan zezan. Hiruna bertso zortziko txikian Ezponda hasita.

Ezponda: Irabazteak badu

bere garrantzia
borondatean nintzan
lan hortan hasia
gero sitxa egin ta
agertu guzia
entrenadoreak du
hor kulpa haundia.

Xalbador Zuhurren hutsaz zuhaur
izan zaite berme
eta huts haundi hori
ez dut hartzen ene
nik manatuan zu ez
zira egon erne
har zinezan erran dut
arrautz eta esne.

Ezponda: Arrautz ta esne hartu
bazagon besterik
boteila bat eman dit
edariz beterik
otoi zuk ez erabil
langintza tristerik
irabazteko ez det
dopina beharrik.

Xalbador. Aizkolkariak ez daut
emaiten aunitz poz
mendekatzen zaut gaizki
portatu delakotz
dopatu da dirua
irabazi asmoz
indarrak bil zintzazken
zuk janari sanoz.

Ezponda: Indartsu banabila
ni jateko onez
aizkolari banabil
ongi osasunez
aitortu behar bait dut
gaur hitz erdi batez
kanbiatzerat noa
ni entrenadorez.

Xalbador: Gertatzen zaizunak ez
daut eman atsegin
zer gizon mota ziren
munduak du jakin
zuzen jokatzuz ere
irabazi berdin
holako jokorik ez
otoi berriz egin.

Larretxea: Auzoko zerria hil dute eta Elizagoien, herriko apez erretoreari, urdaiazpikoa eman diote; Mendibururi, herriko alkateari, lukainka muturra. Hiruna bertso zortziko txikian apeza hasita.

Elizagoien: Pozez beterik dago
gaur apaiz gaztia
ez pentsa nagonikan
batere tristia
erregalatu diate
gaur urdaiazpia
eta Mendibururi
bere argazkia.

Mendiburu: Argazkiekin otoi
ez zaitela xora
lukainkekin ezin da
abia inora
zergaitik ukan dutan
heldu zaut gogora
zuk lukainka jadanik
duzu aski gora.

Elizagoien: Lukainka kontuetan
nola zaigun hasi
alkate jauna dabil
nahikoa itsusi
herriari lapurtzen
karpeta ta guzi
gaur egun bertzerikan
ez zuen merezi.

Mendiburu: Neure erranetik zu
zira trebeskatu
lukainka horrekilan
fitezko freskatu
ainitz neskari omen
diozu eskatu
ta xingar azprietan
maiz egin bekatu.

Elizagoien: Apaizai hoi erraten
ez zara ez lotsa
nola bota didazun
arrazoi zorrotza
zerri muturra bait da
nahiko aproposa
zerri muturra duzu
zakurran bihotza.

Mendiburu: Apez eta auzapèz
bada mila kondu
gaur ere hemen biak
gu ezin konpondu
lukainka, xingarrazpi
biak ere on du
apaiz gaztea hobe
zinuke ezkondu.

Larretxea: Zortziko txikian hiruna bertso botatzeko gaia hau duzue: Laka, aita zara eta herriko baserrian bizi zara. Zu berriz, Arozena, seme gaztea Iruñera joan zara estudiantzera. Gaur Laka, aita, Arozena bere semea nola bizi den ikustera joan eta, zer ikusiko eta hara, Arozena, semea bi neskarekin bizi dela pisu batean.

Laka: Ene egonlekua
dago baserria
etxetik joana zaut
hor seme berria
bisitatu behar dut
Iruña hernia
konturatzeko nola
zerautan jarria.

Arozena: Aita gaur Iruñera
nahiko astakirten
ohitura zaharretatik
ezin zara irten
bizimodu hau nola dan
hasi zu jakiten
hoiekin lo besterik
ez dut nik egiten.

Laka: Holakorik oraino
nik ez nuen uste
ez dituzu beteak
hemezortzi urte
zure lanerako da
jokaera hau kalte
ez nizun holakorik
zuri eman parte.

Arozena: Nere biziaz aitak
gaur itxuraz min du
gauza gehiegi ere
ez zidan agindu
lotsatuta moduan
orain hitzegin du
bakarrik pisurikan
ezin det ordaindu.

Laka: Ordaintzeko dirua
ez nuen ahantzi
eta igorri zaitut
behauzu ikasi
baserriak geroan
zu gain ezin bizi
lanari lotu zaite
xorakeriak utzi.

Arozena: Nonbait ez du gustoko
semeak egina
berak ere laneko
ez du eta grina
baserrin badet nonbait
nahiko eragina
bakarrik ein lezake
hau fma bazina.

Larretxea: Alkat, martzianoa zara, Marte planetakoa eta etorri zara lurra eta lurrean bizi direnak nola diren eta nola bizi diren ikustera. Argiñarenarekin topatu zara. Argiñarena ostatuko atean mozkorturik eta zutik ezin egonez dago. Hiruna bertso zortziko txikian, Alkatek hasera emanik.

Alkat: Lurrerat jausteko nik
baneukan beldurra
lehen aldikotz dautzut
egiten agurra
amentsetan nindagon
"nola da ba lurra?"
nolaz zuk hain gorria
daukazu sudurra?

Argiñarena: Ta zuri erantzuten
hasteko det txanda
nik ere egingo det
nere propaganda
sudurra horren gorri
zurea izan da
zer kolore nahi dezu
hainbeste edanda?

Alkat: Bidaia luze huntaz
heldu naiz goserik
ta zu itxuraz zaude
ederki beterik
postura hau ikusiz
hemen naiz tristerik
lurrean ez ote da
zutik egoterik?

Argiñarena: Edan ezkeroz behintzat
zaila da izaten
mozkortuta nagola
garbi det esaten
orain ormaren kontra
lurrera ixtant baten
eta ardo goxorik
ez al dezu Marten?

Alkat: Arnoarentzat ez nau
deitua etxera
nik amentsak nituen
batetik bertzera
ibiliko nintzela
loretik lorera
mozkorrak daude eta
banoa Marzera.

Argiñarena: Zuri ere antza hau
honek hartzen dizu
erronka ugaria
behintzat dabilkizu
zurrut kontuan noski
berdinak ni ta zu
hemengo ardo gorrik
gustauko zaizkizu.

PUNTUA ETA LAU OINAK

Taberna: **Indarra duena da munduan nagusi**

Xalbador Hori guk aski untsa
dugu bai ikusi
gauza bera galdatzen
berriz nahi dut hasi
noiz izanen da guretzat
nahi hainbat justizi.

Taberna: Lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **URRATSA, HATSA, ABERATSA** eta **ALTXA**.

Xalbador: Helburu bati buruz
hartzten dut nik hatsa
eta hari buruz maiz
egiten urratsa
Euskadi maite hau guk
bagineza altxa
orduan nindaik ni
zinez aberatsa.

Taberna: **Garazitik Bilbora Gasteizen barrena**

Elizagoien: KORRIKA da holaxe
hortxe dabilena
bere alde eman behar
guk daukagun dena
ia jasotzen dugun
hizkuntzik zaharrena.

Taberna: Lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **GOGOIA, GEROA, GIROA** eta **BADOA**.

Elizagoien: Gure herritik orain
etsaia badoa
hori bidaltzeko nik
banuen gogoia
ikusirikan hemen
dagoen giroa
lasai lagun guziak
gurea geroa.

Taberna: **Sagardotegietan**

pozik da jendea

Mendiburu: Han triste badagonik
nehor ote dea?
entzun dut norbait dela
maiz hantxe gordea
baina Mendiburu hau
ez da han ordea.

Taberna: Lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **MENDIA, EGIA, IZERDIA** eta **BEGIA**.

Mendiburu: Famatua Heletan
Baigura mendia
aizu, Mikel Taberna
hori dut egia
mendi horri bota dut
goizero begia
artzain askok ixurtzen
hortxe izerdia.

Taberna: **Emakumeak ere
gizonak bezala**

Ezponda: Badakit aspalditik
hala dabiltzala
hoiek badaukate bai
berekin ahala
gu hoiien neurrirat
ezin heldu hala.

Taberna: Lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **IRATZARRI, HERRI, EGARRI** eta **ZORAGARRI**.

Ezponda: Zerbaiten beha dago
gure Euskal Herri
euskaldun orok behar
dugu iratzarri
gure indar poxia
berari ekarri
bateratzen bagina
laike zoragarri.

Taberna: **Bertsolari guziak
lotsagabe dira**

Arozena: Hori al da guregan
dezun ikusmira
zu bazterren errez zaude
hartu eta tira
koxkorrikan badezu
etorri erdira.

Taberna: Lau oinak zortziko txikian bertsoa osatzeko: **NEGUA, GALDUA, SAINDUA** eta **MUNDUA**.

Arozena: Ez naiz gizon xuxena

ni ez naiz saildua
baina maitatutzen det
bihotzez mundua
berdin zait udaberri,
uda edo negua
gure etorkizuna
ez dago galdua.

Taberna: **Eguneroko lana
bai dela gogorra**

Alkat: Nik ere egin behar
gaur nere aitorra
baina lanarekin da
heltzen ahal gora
nik ere maiz izerdiz
bustitzen atorra.

Taberna: Lau ionak bertsoa zortziko txildan osatzeko: **ETXEA, HAIZEA, HARTZEA** eta **BERTZEA**.

Alkat: Gauza gogorra bait da
lanaren hartzea
ez pentsa uros denik
sekulan bertzea
denentzat iduzkia
denentzat haizea
bakoitzak salbatzeko
beraren etxea.

Taberna: **Polit eta dotore
zara etorria**

Argiñarena: Tabemak ere noski
dida igarria
nere jazkera hauxe
dotoregarria
alkandorik onena
andreak jarria.

Taberna: Lau oinak bertsoa zortziko txikian osatzeko: **ERRAN, GERRAN, ERAN** eta **AUKERAN**.

Argiñarena: Pakea gutxi eta
burruka aukeran
mundutarrak gabiltza
gu gabiltzan eran
herri bat besteakin
zergaitikan gerran
armak isildutzeko
beharko det erran.

Taberna: **"Bordatxo" barrenean
badugu bilera**

Laka: Hemen pasatzen dugu
atsalde ederra
bertsozaleak ere
badauka aukera
bertso onen artean
tarteka hor txarra.

Taberna: Lau oinak bertsoa zortziko txikian osatzeko: **AUNITZ, HITZ, BALITZ** eta **BERRIZ**.

Laka: Doneztebe gustatzen
zeraut neri aunitz
herri huntaz nik erran
nezazke ainitz hitz
ene herritik hori
urbilago balitz
egun pasa jin naike
binar berean berriz.

GARTZELAKO LANA

1. *Azken puntua:* **KORRIKAN EGIN EGUN BATEAN
URTE OSOAN HITZEGIN**

2. *Gaia:* "Gizonak, gizon denetik, gauza aunitz asmatu du: klase guzietako armak, telebista, komuna, esate baterako. Baina zein dira asmatu gabe, eta zure ustez, asmatu behar liratekeen gauza edo tresnak". Hiruna bertso doinu eta neurri librean.

Xalbador: 1. Euskerarik ez dakien asko
bait da oraino Euskadin
egoera hau nahi nuke noizbait
nolazpait aldatu dadin
dakiten baino gehiago haurrek
behar du euskara jakin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

Xalbador: 2. Asmatu dira hainbertze tresna
egin dira hainbat arma
eta holaxe zabaldua da
gure munduaren fama
zer bertze tresna behar litaiken
pentsatzera ni nerama
gizon guziak berdintzekoa
ez ote ditaike asma?

Oraino ez den tresna batzuek
zer ote luke oihartzuna?
bat zer nahi nuken galdatu dut ta
denek duzue entzuna
bertze tresna bat nahi nuke ta nork
emanen daut erantzuna?
tresna berri bat balitz eginen
lukena zuzentasuna.

Segetu bat gure Jeinkoak
berak daukake gordea
gizona bere ustez haundi da
Hura nagusi ordea
gizonak ez du tresnekin nehoiz
munduan egin ordrea
Jauna, Zu zira tresnen jabe ta
Zuk egin zazu bakea.

Elizagoien:

1. "KORRIKAn" gabiltz bero-beroak
korrika gabiltza arin
nagon lekutik entzule maite
haxe behar dut hitzegin
andre gizonak euskaraz eta
hautxo maiteak berdin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

2. Arma ta tresna ugari dago
hemen entzule laguna
baina hala ere nire bihotza
tristea eta iluna
ez da iristen gure gainera
oraindikan maitasuna
hasarrea ta gerra zikina
hemen sobran daukaguna
eta berriz falta zaiguna
behar degun nortasuna.

Gertatzen dena gertatu eta
nola ez egin negarrik
arma zikina ta hasarrea
nola daukagun bakarrik
bide hortatik ez goaz inon
hemen gazte eta zaharrik
eta hemendik oihuka nago
arma honetxan egarrik
pakean dagon herriak ez du
arma zaharraren beharrik.

Arma ugari, tresna ugari
hemen badago indarra
ta horregatik gure herrian
dabila sua ta garra
hau horrelaxe ikusi eta
nola ez egin negarra
etor dedila falta den arma
badago horren beharra
alkar maitatu eta bakea
da falta dugun bakarra.

Mendiburu:

1. Gora Euskadi erdaraz askok
erraten dute Euskadin
erdaraz mintzo noiznahi eta

eman didate hainbat min
euskaraz mintza daitezen beti
nahi neieke galdegin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

2. Gaurko munduan gizona ez da
buruz ahula ta mentsa
tresna ainitz du pentsatu eta
haundi du bere amentsa
telebista ta abioi eta
arma indarren defentsa
batek bertzea nola menpera
ta nola berdin ofentsa
baina bakea eiteko tresna
noizbait dezatela pentsa.

Jakintsunek gaur munduan dute
naski hainbat jakintasun
tresna ederrak jarri dituzte
dute hainbat edertasun
hioen aurrean kezkatu egun
jakintzu nola naukazun
eskatzen dizut makina on bat
duena zerbait maitasun
elgar artean sor dakigula
gehiago anaitasun.

Pentsalariak, jakintzu haundi
zuen aurrean naiz umil
fantasiako tresna haundia
asko zuekin bait dabil
arma indarrez ta bertze moldez
gizona beti erahil
makina berri bat otoi pentsa
baldin bazirezte abil
euskaltzaleak ta abertzaleak
inoiz ez gaitzela hil.

Ezponda: 1. Orain datorren gaztetxoari
zer behar zaio galdegin
gure hizkuntza goratu dezan
eta horretan ahalegin
gure hizkuntza bertze batzuekin
izan bait daitaie berdin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

Ezponda: 2. Politika ta hitz haundietan
mundua bait dut entzuna
eta berriki aditu dugu
arma hioen erantzuna

pentsatzen nago gure arterat
noiz heldu zaigun eguna
gizon horiek denak bilduta
han dago txukuntasuna
lehendabiziko asmatu behar
genduke gizatasuna.

Badakizute bagabiltzala
gauza baten eskasian
indar haundiek gordetzen dute
mundua hauen babesian
lagun on batzuk gartzelan eta
bertze batzu ihesian
sentimentuak bizi ditugu
guk askoren familian
hoinbeste malko gaur ixurtzen da
askatsun eskasian.

Nere gustuko Euskadi huntan
hau da erran nahi nukena
gizon haundiak alboratuta
jali gure ahalmena
euskaldun gisa ibili gaiten
azaldu gure kemena
arrazoi gabe ezin bait dute
hartu gure dagoena
nortasuna ta euskera dago
gure armarik onena.

Arozena:

1.Nere ustetan denak beharko
genduke egin ahalegin
gure herrian sumatzen denak
sarri ematen bait dit min
nahiz ta haurretan euskara ikasi
gero nolaz ez hitzegin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

2.Gure herriak igarotzen du
sarri hainbat une gazi
nahiz sukaldeko txoko hoietan
gurasoak txintxo hezi
gero munduan zehar joateko
badugu hainbeste grazi
baina oraindik gorroto asko
auzoan det nik ikusi
maitasunaren inbentoa da
nik nahi dudana lehenbizi.

Esan dedanez bizimodua
dijoa nola edo hala
goizen seiretan beti jeikitzez

hori ez da hain normala
goizetik arrats gainean dugu
beti norbaiten itzala
inbentoreei eskatzen diet
hortatik libra gaitzala
ea pobreak lan gutxirekin
nola lortzen dun jomala.

Nere bertsoak izan nahi dute
etorkizuna lotzeko
anaiak ere burrukan gabiltz
animalien antzeko
nik eskatzen det ahal dunik bada
gugandikan hau kentzeko
urruti dauden anaiak heldu
eta guk hartu etxeko
ia zerbait 'e egiten duten
askatasuna lortzeko.

Alkat: 1. Gure euskera galtzen ari da
horrek emaiten deraut min
baina gaur egun hainbat entzule
zuetan badut atsegin
gure hizkuntza salbatzekotan
egin beharko ahalegin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

Alkat: 2. Orai artean gizonak badu
nahikoa asmatua
baina ez pentsa obra eder hau
orai denik bukatua
hoinbertze gauza egiteko da
aspalditik ohartua
tresna berri bat asmatzekotan
oihu hau dut botatua
noizko derauku ba asmatuko
elgarren errespetua.

Gizonak dauka buru sanoa
baina usu nahasia
bere barneko danak zuzentzen
behar norbaiten grazia
egun gizona gerran dabila
hori gauza itsusia
dirua edo petrolarekin
munduaren nagusia
noizko derauku ba asmatuko
zuzen dagon justizia.

Irak aldean gerra izanda
nork ez du berri entzuna
pare gabea, oso garbia
ameikarren oihartzuna
gerla zuzena, beharrezkoa
hauxe duten ontasuna

Iraken aldiz milaka hilak
hori ez dago zuzena
armarik ederrena enetzat
guzien askatasuna.

Argiñarena: 1.Nola zaharrak ta nola gazteak
ta neska mutilak berdin
gure hizkuntza osasuntzeko
behar deguta ahalegin
guzien lana hori deguta
ez beza inork aldegin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

Argiñarena: 2.Gezur haundirik ez dut esango
hemen zenbait gauz aitortuz
teknika mailan aurrera goaz
makina haundiak sortuz
bizibidea askotan ere
erreztasunean lortuz
baina orain ni gauza batzukin
nola naizen konturatuz
gizonak gizon izan gaitezen
elkarri errespetatuz.

Nekazariak gaur traktoreak
lehenago laiez nekean
gaur hiru orduz egiten dana
egun batez zitekean
eta gaur nola bizi geraden
jarri jakina gainean
hitz eder asko elkarrentzako
gizon askok mingainean
baina oraindik ez du ikasi
bihotzez bizitzen pakean.

Eta gizonaren serbitzuan
eskertzen egin ohi dena
baina oraindik ez du egiten
bere esku dagoena
oraindik ere ez du jakin ta
asmatutzen zoriona
errespetoa lehen esan modun
elkarri zor ohi diona
hemen pakean bizitzea da
inbentorikan onena.

Laka: 1.Gure hizkuntza salba litaike
baldin lotuz elgarrekin

gaur bezelako lasterkaldiak
zinez nahi dio ekin
gazte guziak euskaraz mintza
balitez nuke atsegin
"korrikan egin egun batean
urte osoan hitzegin".

Laka: 2.Egia erran gizonak dauku
asmatu aurrerapena
gauzak errexi egin ditzagun
da asmatzaile lehena
nik ez dut uste hala ere hori
den gauzarik beharrena
ikus dezagun nolatan dagon
gu tarteko ingurumena
amodioa ikertu behar
luke ahalik maizena.

Telebista ta armamendua
bada segur tresneria
eta gizonak bildu du hortan
bere abilidadia
ala ere ikusten egunero
zonbat dagoen eria
bertze zerbaitez ase behar da
ene iduriz herria
errespetua asmatzea
da ene iduriz berria.

Gaurko gizona teknikalari
ote daukagu bakarrik
horren xutitzen urte askotan
egin izan du indarrik
hainbertze gerra, hainbat borroka
pasa dugu une txarrik
baina gu tartean jende zintzoak
oino badaude beharrik
bake eta errespetu gabe
ez deraukagu herririk.

AZKEN AGURRAK

Imanol Lazkanok, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko lehendakariak, bere agurra eskeini zuen sariak banatzerakoan.

Lazkano: Erregali bat nola ukatu
honen leku berezian
Nafarroako anai batentzat
dakart maitasun bizian
nik emandako txoritxo hauek
ez bitez galdu ehizian
baizik kantari jo dezatela
nafar euskaldun guzian.

Taberna: Epaimahaiak bere deliberua eman du eta 522`5 punturekin Manolo Arozena goizuetarra dugu Nafarroako bertsolarien txapeldun berria. Ondotik, 521 punturekin, Jean Pierre Mendiburu heletarra da aurtengo txapeldun ordea. Bertsorik onenari dagokion kopa Jean Pierre Mendiburuk jasoko du ere gartzelan eginiko lanarengatik. Bertzerik gabe, bertsolariak urbil daitezela azken agurra ematera.

Xalbador: Eni ez daike ez dezakedan
zerbait lan nehola galda
eman den epai erabakia
gaur zuzena izan al da?
beti izaiten dira guretzat
hainbat aitzaki ta traba
baina eskertzen ditut entzuten
zauden seme ta alaba
ez daike beraz egin daikena
eta ez dut nahi dadin alda
baina konforme nago saioa
zuen gustoko izan bada
konforme nago eta agurrez
nahi dut egun hau akaba.

Elizagoien: Denak agurtzen ditut
gaintikan behera
zorionak txapeldun
lagunen antzera
buruan ibil zazu
urtetik urtera
baina apaiza pozik
badoa etxera
gaur emandako urdai
azpiak jatera.

Ezponda: Izena ematean
irriskitsu gera
txapelketa hau ez da
egun alegera
honeratuz geroztik
behar da atera
entzule heldu naiz zu
esker ematera
ni berriz helduko naiz
zu heltzen bazera.

Alkat: Entzuleak ta epaimahaiari
biak ditut eskertuko
Mendiburu ta Manolori gaur
zorionak bihurtuko
etxean dagon lagun Arzallus
ez dut bate baztertuko
eta goratu nahi nuke ere
gaztena bait dugu Urko
geldi gaitezen elgarren lagun
nafartarren serbitzuko.

Argiñarena: Zorionak Manolo
bihotzetik lehenen

bertsolari lagunak
berdinki ondoren
gaur "Bordatxon" bertsoen
giroa zegoen
penagarria baina
bukatzen da hemen
agur Maldaerreka
agur Donezteben.

Laka: Bururatu da beraz
gure esamina
aldegin da mina
gaurko saioak ukan
duke eragina
gaiak politak ziren
bazen zer egina
Lazkanoren deiari
egin zagun zina
txaloak txapeldunei
ta har atsegina.

Mendiburu: Ez nuen uste hartzea
sarietan bigarrena
eta gartzelako gaian
bertsuetan gaur onena
epaileri ta entzuler
bihotzetik goresmena
bai eta gora xapeldun
den Manolo Arozena.

Arozena: Urteak joan, urteak heldu
jende berdintsuk gabiltza
esan litake guk daukagula
nafar bertsoaren giltza
baina hemen hain justu
egin nahi dut apustu
hartu zaidazute hitza
denon artean baietz salbatu
nafarron bertsolaritza.

Ai! zer pozikan sentitzen dedan
prenda beltz honen epela
nahiz eta jakin zortzikotean
onena ni ez naizela
baina aurrera goaz
gure tronpeta joaz
ikaslengana berela
muxuak orain denentzat dira
zuentzat nere txapela.